



## Alurrek antolatuta, Dantza Eguna bihar

**IBARRA** ▶ Goizean 250 ume inguru ariko dira dantzan eta arratsaldean «animatzen diren herritar guztiak»

**LEHENDABIZIKOA** ▶ Euskal jaien kutsua eman nahian, baserritarrez jantzita joatea eskatu dute ▶ 6



Atzoko manifestazioa. N. LATABURU

TOLOSA ▶

### Grafikagintza alorrekoek protestekin jarraitzen dute

400 lagun bildu ziren atzo, manifestazioan; «Adegik ez du pausorik eman», esan dute ▶ 5

LEITZA ▶

### Gerra Zibilean erail zituztenen inguruko hitzaldia, Aurreran

Lourdes Herrastik eta Frantzisko Etxeberriak emango dute gaur ▶ 7



N. LATABURU

### Babarrunaren ereitea egin dute

**TOLOSA** ▶ Gernikako Arbolaren lorategian erein zituzten aleak atzo; herritar guztientzat ikusgai izango da babarrunaren prozesua ▶ 4

## ANOETA ▶ JAIK



## Haurrek egun berezia izan dute eta gaur antzerkia da nagusi

I. Garcia ▶ Anoetako jaietan atzo haurren eguna izan zen. Mozorroren eguna ere bai eta haurrak mozorrotu ziren nagusiki. Goizeko jolas parkearen ondoren, arratsaldean pailazoaren emanaldia jarraitu zuten eta gero buruhandi eta erraldioen bisita izan zuten. Plazan jende ugari bildu zen, batez ere itzalean, eta herriko soinu-jole gaz-

teek alaitu zuten herria kalejiran. Gaurkoan antzerkia izango da nagusi. Hiru ikuskizun izango dituzte festen egitarauan, denetan herritarren parte-hartzearekin. Antzerki ikastarokoek eta bertso eskolakoei emanaldia emango dute; gero playbackaren txanda izango da eta afal ondoren herri antzerkia. HITZA

## VILLABONA ▶

Fleming  
eskolak bere  
festa egingo  
du bihar

## ERREDAKZIOA

Villabonako Fleming eskolak bere festa egingo du bihar Arratzainen. 11:00etan ekingo diote ekitaldiei, maila ezberdinetako ikasleek beraien emanaldiak eginez kiroldegian. 11:00etatik aurrera ere eta bazkaldu arte argazki eta eskularen erakusketa ikusgai izango da. 12:45ean bertso emanaldia egingo dute Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoek jangelan. 13:30ean bazkariaren txanda izango da eta frontoian egingo dute. Bazkaldu eta gero, guraso elkarrekin antolatutako ekintza eta tailerrak egin ahal izango dituzte. Fleming eskolak ohar baten bitartez azaldu dutenez, Haur Hezkuntzako ikasleek Arratzaineko eraikinean 10:45ean egon behar dute.

## VILLABONA-ZIZURKIL ▶ HALTEROFILIA

Climet trofeoan, Igor  
Sasiain hirugarren

Eskualdeko sei pultsularik emaitza onak lortu zituzten

## ERREDAKZIOA

Danena-Olaederrako sei pultsularik parte hartu berri dute Antonio Climet trofeoan. Igor Sasiainek sailkapen orokorrean hirugarren postua lortu zuen. Trofeoa Gandian (Valentzia) jokatu zen eta baliagarria da Europako 17 urte azpiko aurreko faserako.

Eskualdeko pultsulariek emaitza onak lortu zituzten. Adrian Sasiain laugarrena izan zen 50 kiloko mailan; Iker Hernandez bigarrena izan zen 56 kiloko mailan; Igor Sasiainek sailkapen orokorrean hirugarren postua lortu zuen eta 62 kiloko mailan bigarrena izan zen; Mikel Quintanak lehen postua eskuratu zuen 77 kiloko mailan; 94 kilo baino gehiagoko mailan Julen Intxausti bi-



Mikel Quintana Antonio Climet trofeoan lehiatzen. I. GARCIA

garrena izan zen eta Jokin Urki-zu laugarrena.

Emaitza hauekin abuztuaren 22tik 26ra Pavian (Italia) jokatuko den Europako 17 urte azpiko txapelketarako txartela lor-

dezakete Iker Hernandez, Igor Sasiain eta Mikel Quintanak. Azken aukera Gijonen (Espainia) izango dute uztailearen 28an jokatuko den Espainako Absolutu Txapelketan.

## ANOETA ▶

Autobus txartel  
bateratua  
eskuragai

Autobus enpresa ezberdinen zerbitzua ordaindu ahal izateko txartel bakarra ateratu dute. Anoeta, Irura, Alkiza eta Hernialdeko herritarrek Anoetako plazan dagoen Coviran dendan eskuratu dezakete txartela. Datuak eman eta lau egun ingurura jasotzen da txartela. Gero txartel hori hornitzeko Coviran dendan bertan egin daiteke.

## VILLABONA ▶

Igoera faseko  
lehen partida  
gaur Lakunzak

Areto futboleko Transportes Lakunza taldeak gaur izango du igoera faseko lehen partida. Durangoko (Bizkaia) Sasioko taldearen aurka ariko da 20:00etan Olaederra kiroldegian. Hurrengo partida etzi izango du, 11:30ean, Gasteizen UPV-Arabaren aurka. 09:15ean autobusa aterako da kiroldegiaren aurretik. Izena emateko Erreka, Rainbow, Apatx eta Upaien.

## VILLABONA ▶

EHNArekin  
bozkatu zutenei  
«eskerrik asko»

Villabonako Bai Euskal Herriarrik eskerrak eman nahi dizkie maiatzaren 27ko udal hauteskundeetan EHNArekin bozkatu zuten herritarrei. «bereziki EHNArekin bozkatzea ahalbidetu zuten hautes-mahaletako kideei», ohar batean zehaztu dutenez. Bestalde, deialdia luzatzen dute bihar EHNA egiteko. Kultur Etxean izango da aukera, 11:00etatik 13:00etara. Hiru argazki, 15 euro eta errolda agiria eraman behar dira.

Prezio magikoak Citroën-en

Citroën, Espainiako merkataritza liderra, Visiospace berriak jaurtitzen ditu eta prezio hauekin ospatzen du:

Citroën XSARA PICASSO 13.700€* tik aurrera	Citroën C5 17.600€* tik aurrera	Citroën C4 12.500€* tik aurrera
Citroën GRAND C4 PICASSO / 7 esefekukoa 8.400€* tik aurrera	Citroën C4 PICASSO / 5 esefekukoa 8.900€* tik aurrera	

**IROVI, S.A.**  
Citroën Konzesionario Ofiziala  
Industrialdea z/g. • Tel.: 943 65 18 42  
Anoeta / Tolosa

**VISIOSPACE-ak**

**CITROËN**

ERLIJIOA ▶

# Mende bateko historia

100 urte betetzen dira aurten Sakramentinoak Tolosara etorri zirenetik; egun dauden egoitzan jarri aurretik, Rondilla kalean izan ziren 1907tik 1913ra arte

IÑIGO TERRADILLOS

Sakramentinoek Tolosara heldu zirenetik 100 urte betetzen dituzte aurten. Urte hauetan guztietan, jende ugari izan da bertan ikasketak burutzen, irakasten edota, misiolariak hezten, besteak beste. Urteurrena hil honetan, bihurtik aurrera oroitu dute.

Antza, 1907ko apirilaren 17an, Gasteizko gotzainak onartzen du, Aita Jeneral Estevenon-i zuzenduriko dokumentuan, Sakramentinoak Tolosara kokatu zitezen. Hain zuzen ere, Jules Bonnacaze izan zen Tolosako Sakramentinoen fundatzailea. Aita Sakramentinoa, frantsesa bera, 1907an iritsi zen Tolosara, uztailaren 16an. Lehen sei egunetan, Jose Antonio Arcelusek Korreo kalean, 26. zenbakian zuen etxean egon zen; ondoren, Rondilla kaleko 32 zenbakiko etxean — Jose Antonio Arcelus zen jabea — kokatu zen. Segituan Gilermo Anaia iritsi zen, eta azarorako hiru dira seminario txikian, hau da, Sakramentinoen Tolosako lehen egoitzan: Aita Jules Bonnacaze, Gilermo sukaldaria eta Aurelio arotza, bi hauek Suizako semeak.

Beste Anaia bat eta bi apaiz iritsi ziren 1907ko abenduaren 7an, hauetako bat Jean Lavigne. Bi kaliza dakartzate, eta handik egun gutxira iritsi zen beste kaliza bat Paristik, eta kustodia, liburutegia, kantu-liburuak eta armonioa Marselaitik.

Tolosako fundazioak laster batean hartu zuen seminario txikiaren itxura. 1907ko abenduan jadanik 70 eserleku zituen eta beste 170 eskatu zituen kaperarako. 1908ko urtarilaren 6an, kapera eta egoitza estreinatu zituzten, eta urte horretako urriaren 24an hasi ziren klaseak.



Egun Sakramentinoen egoitzak duen itxura. i. t.



1907.ean, egungo Musika Eskolaren ondoan, seminario txikia. HITZA

## EGITARAUA ▶

**BIHARTIK HILAREN 17RA Erakusketa.** Argazkiak eta eliz ontziteriak, 18:00etatik 20:00etara.

**BIHAR Goizean.** Ikasle ohien eguna.

**EKAINAK 14, OSTEGUNA 20:00.** *Euskaristia, existentziaren ikuspegi berri baten sorburu* hitzaldia.

**EKAINAK 15, OSTIRALA 20:00.** *Eukaristia,*

*adiskidetanaren esperientzia* hitzaldia.

**EKAINAK 16, LARUNBATA 18:00.** Oitoiz-aldia Corpus Christi elizan.

**20:00.** *Aldi zailetan eukaristia nola bizi* hitzaldia.

**EKAINAK 17, IGANDEA 12:00.** Eskeronezko meza nagusia, Juan Maria Uriarte Donostiako Gotzainarekin.

Ondoren, aperitiboa Ikastolako jolastokian.

Tolosako komunitate honen helburua Sakramentinoen seminario txikia eta nobiziadua zabaltzea izan da, komunitate egoitza eta kapera publikoaz gainera. Hego Amerikarako misiolariak heztea izan zen lehen eginkizuna. Hala, Tolosatik irtendako erlijiosoen eraginez bereziki sortu zen Sortzez Garbiaren Probintzia: Argentina, Txile, Uruguai eta geroago sortu zen Joan XXIII. Erregio autonomoa: Kolonbia, Peru eta Puerto Rico.

Jules Bonnacaze fundatzaileari dagokionez, komunitateko Aita Nagusi izan zen 1917ko maiatzaren 17ra arte, Tolosatik joan zen arte, eta Parisen hil zen 1942ko uztailaren 27an. Bonnacaze Tolosatik joan zenerako, egungo egoitzan ziren Sakramentinoak, 1913. urtean jarri baitziren bertan. 1943. urtera arte, 300 ikasle inguru igaro ziren komunitatetik, eta urte horretatik 1972ra arte, berriz, 600 inguru. Egun, 11 apaiz Sakramentino bizi dira egoitzan.

## Ekitaldi ugari

Mendeurrenaren ospakizuna bihar hasita, Korpus Jaiaren inguruan egingo dute, «Sakramentinoen Lagundiko jai berezia baita». Egitarauaren baitan, datorren astean hitzaldiak izango dira Kultur Etxean Anthony McSweeney-ren eskutik, eta bihar ikasle izan direnen eguna egingo dute.



Jules Bonnacaze. HITZA

## iragarki laburrak ▶

### ALOKAIRUAN

**Errioxan.** Kanpin batean karabana alokatzen da, gutziz erosoa. 669 70 68 70.

### SALGAI

**Etxebizitza.** Alegian, 2 logelako etxebizitza polita salgai, erabat berria, 2 bainugelekin. 36.000.000 pezeta. 669 82 70 96.

GIZARTEA ▶

## Euskal Bizikleta dela eta, trafikoan aldaketak

Tolosan bukatuko da gaur lehen etapa eta bihar bigarrena bertatik abiatuko da

ERREDAKZIOA

Euskal Bizikletako 1. etapa Tolosan amaituko da gaur, eta 2.a Tolosatik abiatuko da bihar. Hori dela eta, aldaketa batzuk izango dira herri barrurako sarbideetan. Garraio publikoari dagokionez, gaur, 09:00etatik aurrera, etenaldiak izango dira San Frantzisko pasealekuaren inguruan, helmuga eta segurtasun-azpiegitura jartzeko. Bestalde, 15:00etatik aurrera, ibilgailuentzat itxita egongo da Rondilla kalea, garraio publikoarentzat izan ezik, eta 16:00etatik aurrera, erabat itxita egongo dira Rondilla kalea eta San Frantzisko pasealekua, proba amaitu eta dena desmuntatzen duten arte. Horretatik, 16:00etatik aurrera, sartzeko, Tolosako bigarren sarrera hartu behar da autobian, Usabalekoa (Nafarroa-Leitza norabidea), eta Kondeaneko Aldapatik jarraitu Santa Klarako biribilguneraino. Geraleku bakarra Igarondo kalekoa izango da (bialean).

Era berean, bihar, etenaldiak izango dira Rondilla kalean eta San Frantzisko pasealekuan, 09:00etatik aurrera, harik eta lasterketa herriak ateratzen den arte, hau da, 10:00ak aldera arte-edo.

## Tolosako Udala

IRAGARKIA

Tolosako Udaleko Gobernu Batzarrak, 2007ko maiatzaren 21ean egindako bilan, hasierako onespina eman zion, baldintzekin, EZ.7 "Gorostidi-Voith" eremuko 2. Egikaritze Unitatea Urbanizatzeako Jarduketako Programari, LARRAMENDI MADALEN PROMOZIOAK, S.L.k sustatuari.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 156.3 artikulua arabera, espedienteak jendaurrean 20 egun egongo da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesaturik daudenen egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

Espedientea aztergai egongo da aipameneko epearen barruan, Tolosako Udaletzeko Hirigintzako Bulegoan (Plaza Zaharreko 6-B). Alegazioen idatziak Udaletzeko Sarrera Erregistroan aurkeztu behar dira, Udaleko alkate-lehendakariari zuzenduta.

Tolosan, 2007ko ekainaren 6an.  
BEHIN BEHINEKO ALKATEA



1915. urtean eginiko argazkia. Ikasleak eta apaizak ageri dira. HITZA

BABARRUNAREN EREITEA ▶

# Hiriaren bihotzean hiriaren altxorra

Gernikako arbolako lorategian erein dituzte, prozesu guztia denen ikusgai

## ERREDAKZIOA

Babarrunak loreen ordez jaiotzen eta hazten ikusi ahal izango dute paseora ateratzen diren guztiak, Gernikako Arbolako lorategitik pasatzen direnek behintzat. Aurten, babarrunaren ereitea bertan egin baitzuten atzo. San Blaseko baratzean erein izan da, baina aurten, Mari Karmen Iradi Tolosako Babarruna Elkarteko lehendakariak esan duen moduan, «Udalaren desioa izan da, lorategia apaintzeko babarrunak ereitea».

Tolosako Babarruna Elkartaren eskutik beste berrikuntza hau gehitu diote Babarrunaren ereitean. Hala, jendeak babarrunaren prozesu guztia ikusi ahal izango du: «Prozesua ikustea polita da. Orain beroa eta hezetasuna behar ditu, baina bero gehiegi ere ez». Lekuari dagokionez («eguzkitsua behar du»). Alde horretatik, baliteke Gernikako Arbolako lorategia egokiegia ez izatea, baina aterako direla ia ziur daude.

Ereiteko «garai aproposa» da udaberri bukaera, Iradik esan duenez, ekaina zehazki, adituen arabera. Bildu, berriz, iraila aldera bilduko da. Beraz, hiru hilabete itxaron beharko dira babarrun hauek dastatzeko. Lan horri esker, Tolosako babarruna, baserrietako babarrun beltza, alegia, azken urte hauetan goranzko joera duen produktua da eta kontsumitzaileentzat balio handikoa gainera.

## Babarrunaren Astea buruan

Horregatik, azaroaren 12tik 18ra egingo den Tolosako Babarrunaren Astea prestatzen joateko, babarrunaren lehen

prozesua nola egiten den ikusteko aukera izango da. Herriko jendeak, nahiz turistek ikusgai izango dute prozesu guztia. «Aukera gutxi dute tolosarrek Tolosako babarruna hazten ikusteko, Tolosaldeko baserrietara hurbilduz ez bada eta horregatik, gure lekale preziaua hurbildu nahi izan dugu eta babarrunaren hiriburuan ereitea; alegia, Tolosan».

## Ereiteko denak prest

Ereiteko garaian izan ziren Josemi Gomez Garapen Ekonomiko, Turismo eta Enplegu Batzordeko lehendakaria, Mari Karmen Iradi, Jose Ignacio Telleria Tolosako Babarrunaren Kofradiko eta Gure-Kaiola elkarteko kideak, eta Tolosako hainbat jateko sukaldari: Roberto Ruiz (Fronton), Peio Doyharzabal (Astelena), Matias Gorrotxategi (Casa Julian), Pedro Ruiz (Casa Nicolas), Javi Uhalde (Orue), Felix Garrido (Hernialde), Juanjo Pascual (Burruntzi) eta Mikel Zuaznabar (Sausta), Eugenio Galdos (Larrea), Txemari Esteban (Botarri) eta Jokin Zabala (Iturri Goxo).

Horiekin batera, Hirukide-Eskolapiok ikastetxeko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailako ikasleak ere bertan izan ziren, eta zulo bakoitzean bi ale sartzen joan ziren. Tartean ere, ikasle batzuk bertso batzuk eskaini dizkiote Tolosako babarrunari, zegoen giroa hobetuz. Bertan jende ugari bildu da festa usainean, ereitea ikusteko, horrenbeste sukaldari on elkarrekin ikusita, eta bertsoen doinuak entzunda. Hiru hilabete barru emaitzak biltzeko garaia helduko zaie.



**Lehen haziak.** Mari Karmen Iradi hasi zen babarrun haziak ereiten, eta ondoren lerro ia guztietan aritu zen ikasleei ere laguntzen. Zulo bakoitzean bi ale sartu zituzten. Ez du gero esan nahi zulo bakoitzeko landarea aterako denik, baina prozesua ikusteko aukera emango dute batzuk behintzat. NOELIA LATABURU



**DBHko ikasleak.** Tolosako Hirukide-Eskolapioko DBH 1. mailako ikasleak ere ereiten aritu ziren. Bakoitzak 2-3 zulo bete zituen. Irailean ereindakoa babarrunez josita ikusiko dute. INIGO TERRADILLOS



**Bertsoak.** Hirukide-Eskolapiotako ikasle batzuk babarrunari bertso batzuk prestatu zizkieten, eta gero, mikrofonoen beharrik gabe bertan abestu zuten, Gernikako Arbolako lorategian. N. LATABURU

**LEABURUKO OSTATUA**

- Eguneko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea izan ezik)
- Karta aste guztian zehar

Urrope plaza • Leaburu  
Tel.: 943 67 15 48

**ZABALA DESGUAZEA**

- Plan Prebererako zertifikatuak egiten ditugu.
- Txatarrerako kotxeak biltzen ditugu.

Tel./Faxa: 943 67 17 90 • 696 593 347  
Beotibar Induristegunea, 18 • BELAUNTA

**JOE BAR TEAM**

Joe Tabernaren irekierara gonbidatuta zaudete

Gaur 19:30etik 20:30era

**Villabona**



**Sukaldari onenak.** Tolosako hainbat jateko sukaldari ere izan ziren, eta haien txandan zulo batzuk bete zituzten. Hauetako babarrun batzuk baliteke haien lapikoren batean bukatzea... N. LATABURU

ALEGIA ▶ FUTBOLA



**Intxurreko kadeteak, ohorezko mailara**

**N. Urbizu** ▶ Alegiko Intxurre futbol taldeko kadeteek garaipena lortu dute. Oihartzunen aurka zuten kadeteen arteko ohorezko mailara igotzeko finala, eta lehenengoan 1-2 galdu bazuten ere, Oihartzu-

nen 1-3 irabaztea lortu zuten. Ondorioz, alegiarak datorren urtean kadeteen ohorezkoan ibiltzeko aukera dute. Hauek ere, urte bikaina egin dute. **PATXI RENOBALDES**

TOLOSA ▶ EKONOMIA

**Grafikagintzakoek protestekin aurrera**

«Adegik jarrera aldatu ez duela eta», ELA, LAB eta CCOO mobilizazioekin jarraituz deitu dituzte alorreko langileak



Triangulotik abiatu zen atzo manifestazioa Grafikagintza borrokan lelopean. **N.L.**

ERREDAKZIOA

Eskualdeko grafikagintzako enpresek mobilizazioak burutu dituzte egunotan, «Adegirekin akordiorik ez dagoela eta». Herenegun, esaterako, Adegiren egoitzaren aurrean 250 lagunek elkarretaratztea egin zutela azaldu du LABek. Atzo, berriz, manifestazio jendetsua burutu zuten, Tolosako Triangulotik abiatuta. «Guztira 400 langile inguru» bildu ziren. «Mobilizazioak oso jendetsuak izan diren arren, Adegik ez du inongo mugimendurik egin», salatu dute sindikatuek. Hori dela eta, datorren astean ere mobilizazioekin jarraituko dutela jakinarazi dute.

LAB, ELA eta CCOO otsailean hasi ziren elkarriketetan. Dena den, «patronalaren jarrera eta eskaintza atzerakoiaren

aurrean» hiru sindikatuek mobilizazioak hastea erabaki zuten. Hori dela eta, duela hiru aste hasi zituzten protestak.



BEDAIO ▶ MENDIA

**Artubik antolaturiko I. Mendi Martxarako prest**

Etzi izango da elkarteak bideratutakoa

ERREDAKZIOA

Bedaio Artubi elkarteak antolatutako I. Mendi Martxa neurtua etzi izango da. Helburu nagusia, dena dela, inguruak ezagutzea da, eta bedaiotarrek azpimarratu dute, berez ez dela gogorregia ere.

6-8 ordukoa izango da eta 07:30ean abiatuko da frontotik. Punturik garaiena Artubi da, 1.265 metrorekin. Izena bertan, [www.bedaio.com](http://www.bedaio.com)-en edota [bedaioerrota@hotmail.com](mailto:bedaioerrota@hotmail.com)-en eman daiteke. 5 euro balio du izen-emateak.



Banaturako triptikoa. **HITZA**

ALEGIA ▶


**Esgrima, aerobic eta piraguismoa udan ikasteko**

Alegian uda kanpainarako honako ikastaroak prestatu dituzte: esgrima, aerobic eta piraguismoa. Ikastaroak zutailan zehar izango dira eta denak 8 eta 16 urte bitartekoentzat izango da. Izena Kultur eta Kirol Etxean eman behar da, hilaren 15era arte. Antolatzailea Alegiko Udala eta Gipuzkoako Foru aldundia dira.

PILOTA ▶

**HITZA Pilota Txapelketako finalaurrekoak**

HITZA Pilota Txapelketan benjaminen, alebinen eta infantilen finalaurrekoak jokatuko dituzte gaur eta bihar. Gaur, Albizturren alebinak ariko dira 19:00etatik aurrera (bi partida), eta Adunan infantilak ordu berean. Benjaminak Ikaztegiatan bihar ariko dira, 18:00etatik aurrera. Hiru herrietan bi partida izango dira jokoan.



## BERROBI ▶

## Udalak hiru deialdi ezberdinen berri eman du

Zaragozarako bidaia, piraguismo ikastaroa eta ludotekan lan egiteko deialdiak

## ASIER IMAZ

Berrobiko Udalak hiru deialdi egin ditu herritarrentzat zein kanpoan bizi eta ekitaldietan parte hartu nahi duenarentzat. Lehen, Zaragozako jolas-parkera egingo den bidaiaren berri emateko izan da. Ekainaren 30ean, larunbatean egingo da bidaia eta izena emateko epea, udal-txean hilaren 12an amaituko da. 10 euroko kostua izango du bidaia, Berrobin bizi diren haur zein helduentzat. Kanpokoentzat berriz, 19 euro helduentzat eta 15 euro haurrentzat, nahiz eta «herriari bizi ez direnak itxaron zerrendan» egongo diren. Prezioaren barnean, bidaia, parkeko sarrera eta bazkaria sartzen direla jakinarazi du Udalak. Parke barruan igerilekuak daudenez, «nahi duenak toalla, bainujantzia, ... eraman ditzake».

Bigarren deialdia, piraguismo ikastaroaren ingurukoa da. «Ikastaroa antolatuko du Udalak herritar guzientzat, ekainaren 25etik 30era. Txaramako presan egingo da piraguismo ikastaroa eta herriarrek 20 euro ordaindu beharko dituzte. Kanpotarrek berriz 35 euro. Izena emateko epea, hilaren 18an amaituko da udal bulegoan. Ikastaroa 8 urtetatik 99 urte bitarteko pertsonen zuzendua dago eta igerian jakitea beharrezkoa izango da». Txaramako presan arratsaldeko 16:00etan geratuko dira, «joan-etorriak norberaren kontu izango dira» eta ikastaroa 17:30ean amaituko da. «Baina azken egunean, hilaren 30ean, klasea goizez emango da».

Hirugarren eta azken deialdia, uztaian antolatuko den ludotekaren ingurukoa da. «Iaz bezala, Berrobiko Udalak udarako, hau da, uztailak 3tik 14ra, ludoteka zerbitzua antolatu nahi du, eta horretarako 2 begirale behar dira. Interesatuak dagoenak, udal bulegoetan eman behar du izena eta bere kurrikuluma. Datuak aurkezteko epea hilaren 15ean amaituko da».

## IBARRA ▶ JAIA

## ASIER IMAZ

Bihar Alurr dantza eskolak Lehen Dantzari Eguna antolatu du Ibarren. Egun guztian zehar ekitaldi ugari antolatu dituzte eta parte hartzeko deialdi zabalak ere egin dute. Euskal jaien kutsu bera eman nahian Dantza Egunari, baserriarrez jantzita joatea eskatu dute Alurreko arduradunek.

250 ume inguru elkartuko diren arren bihar Ibarren, «(haur eta helduek dantza egiteko eguna bezala antolatu dugu ekitaldia. Goizez haurrak ibiliko dira herrian zehar baina arratsaldean, gerturatzen den guztia dantzan» jarri nahi dutela aitortu dute Alurrekoek. Haurrak Altzo, Berrobi, Irura, Tolosa eta Berastegitik gerturatuko dira Ibarra. Bazkaltzeko berriz, herriko elkarten artean banatuko dira dantzariak, arratsaldean jaiarekin jarraitzeko.

Dantza Eguna antolatzen lagundu duten guztiei ere eskerak eman nahi izan dizkie Alurretik. «Izenak ez ditugu badaezpada esango, jende askori zor baitizkiogu eskerrak eta ziur bateren bat bidean ahaztuko zaigula». Lehen aldiz antolatzen duten arren, «urtero jarraipen bat emateko asmoz hasi gara».

## Estreinakoz

«Goizean, 10:00etan, plazan elkartuko gara. Hasiera emateko, bertan egongo diren dantzari txiki guztiek agurra dantzatuko dute. Ondoren, herrian zehar ibilbide bat egingo dute eta gune ezberdinetan saioak eskainiko dituzte: Euskadiko Ku-

# Alurr dantza eskolak lehen Dantza Eguna antolatu du bihar

Baserriarrez jantzita joatea eskatu dute antolatzaileek, haurrek berriz dantza emanaldiak eskainiko dituzte



Alurr dantza taldeak Altzonen eskainitako emanaldiaren irudia. Ibarren 250 dantzari espero dituzte. N. URBIZU

txaren aurreko plazatxoan, Kultura ondoan, Emeterio Arrese parkean, San Inazio, Karla eta beste hainbat lekutan. Azkenik, plazan elkartuko gara denok. Bertan Ibarra taldeek dantza desberdinak aurkeztuko dituzte, ondoren herrian zehar ibili diren haur guztiek

Fandangoa, Arin-Arina eta kalejira dantzatuko dituzte». Hau izango da goizeko egitaraua. Ondoren herriko elkarteetan, hau da, Xepla, Kirol Elkartea eta Sendi Ekintzan bazkaria emango zaie parte hartu duten guztiei. Bazkal ostean berriz denek dantza egiteko garaia

helduko da, horregatik eta eguraldiak lagunduko duela dirudenez, «denok animatu nahi zaituztegu, heldu naiz gaste, arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara Iparraldetik etorriko diren animazio taldearekin parte hartzera lotsak albo batetara utzita».

## IBARRA ▶ POLITIKA

## Guardia Zibilak ordubete inguruz plazarako sarrera eta herriko irteerak «hartuta» eduki zituen herenegun

## A. IMAZ

Askatasunak, Guardia Zibilak herenegun Ibarren egindako «ekintza larria» salatu du, «euskal gazteria behingoz bakean uzteko» eskatuaz. Izan ere, «Ibarren gertatutakoak argi erakusten du herri honetan ez dutela zer eginik. Euren armen babesean herri bat hartu eta gelditzeko gai dira. Berdin zaie gaua izan edo herriko plaza haurrez beteta dagoen orduan egitea. Beldurra sartzea beste helbururik ez dute. Gazteak kolpatu eta mehatxatzen dituzte, herenegun gertatu

zen bezala. Gertaera hauek lekuz kanpo egon beharko lukete demokrazia batean».

Herenegun Guardia Zibilak Ibarra plaza inguru eta Belantza eta Berrobirako irteerak «hartu» zituen kontrolen bitartez. 20:30ak inguruan, Gaztetxe kanpoan dauden eskalaretan, gazte bat zeukaten aurrera begira, identifikatzen lanetan ari ziren bitartean. 30 minutu gora eduki zuten gaztea, atzean metrailera batekin zegoen guardia zibil bat zuela. Askatasunaren esanetan, «Oreretan igande honetan izango den Amnistiaren Egu-

neko kartelak jartzea leporatzen omen zien gazteari. Hasieran ostikada batzuk eman zituen atzetik, bera aurrera begira zegoela. Beste guardia zibil batzuk bien bitartean, Gaztetxe eta inguruko tabernetara joan ziren, pertsona baten bila ari omen ziren. Taberna batean komuna eta sukaldaria barneraino sartu ziren euren arnez».

Plazarako aldaparen inguruan, bizilagun eta herritarrak elkartzen joan ziren, gertatzen zena ikusteko eta Guardia Zibilaren jarrera gertutik jarraitzeko. Bertan zegoen batek Chelo

Romeori ere deitu zion: «alkateari dei egin diogu, hona etor zedin esateko. Lehenengoan tonua eman digu, baina ondoren itzalita zeukan mobila». Azkenean, ordubete ingurura, identifikatzen zuten gazteari gerriko poltsa itzuli eta joaten utzi zioten. Guardia Zibilak ere berdin egin zuen, plazan zituen hiru autoak hartu eta herriatik alde egin zuten.

Azkenik, Askatasunak azaldu du, «demokrazia eza salatzeke eta amnistia aldarrikatzeke, denok igandean Oreretan egon beharra daukagu; hori baita gure erantzuna».

LEITZA ▶ KULTUR ASTEA

# Gerra Zibilean eraildako inguruko hitzaldia, Aurreran

Lourdes Herrasti arkeologo-antropologoa eta Frantzisko Etxeberria forensea izanen dira gaur, Aurreran 20:00etan

NAIARA GARZIA

Lourdes Herrasti arkeologo-antropologoa hitzaldia eman du gaur Aurreran Frantzisko Etxeberriaren laguntzarekin, 20:00etan. 1936ko gerra eta memoria historikoa izango dituzte hizpide.

«Orain arte egin duguna kontatuko dugu. Aranzadirekin 2000. urtean hasi ginen lehenengo indusketekin, kasualitatez eta geroztik etengabe joan gara batetik bestera Espainia osoan hobiak eta hildakoak ateratzen», dio Herrastik.

Lourdes Herrastik eta bere taldeak indusketak egin ondoren, ikerketa antropologikoa egiten dute. «Hegur horiek Donostiara ekartzen ditugu eta bertan aztertzen ditugu sexua eta adina jakiteko, eta ahal baldin bada identifikaziora iristen gara». Halere, leku batean indusketa lanekin hasi baino lehen, dokumentazio lana egitea «ezinbestekoa» dela esan du. «Hori atalik garrantzitsua da. Gu Toledo eta Burgos inguruan asko ibili gara, eta ez ginateke hara joango ez baleude alde zuretik pertsona batzuk dokumentazio guzti hori landu dutenak. Horretarako etxez etxe joaten dira informazio bila, aspalditik».

Indusketen helburua gorpuak identifikatzea da. «Familiak hori nahi dute. Gu familien menpe gaude, eta haiek eskatzen dutena egiten dugu. Familiak ados ez badaude, ezin da ezer egin. Indusketak modu arrazional batean egin behar dira, ez egin egiteagatik».



Fustiñanan eraildako gizonen argazkiak. HITZA

Helburu konkretu honen gainetik fusilatutakoen duintasuna aldarrikatzea gain, beste helburu bat zehaztu du Lourdes Herrastik. «Ez da bakarrik fusilatutakoen duintasuna aldarrikatzea, familiak gelditu ziren era azpimarratzea baiziki. Emakume asko alargun gelditu ziren eta familia oso egoera larriari atera behar izan zuten, ezer jatekorik ez zeukatelako, pobrezian murgilduta, dena kendu zirelako. Atzean bestelako istorio larriagoa dago».

## Emozio-inplikazioa

Indusketa lanen bitartez gorpu asko identifikatzea lortu dituzten arren, beti ez dela horrela izan azaldu du Herrastik. «Frustrazioak izan ditugu, eta hori oso gogorra izaten da; familiarik egon bertan eta informazioaren arabera txoko batetan daudelakoan han ibili lurre mugitzen eta ezer topatu

ez. Hori oso gogorra da. Berriak beharbadu urtetan jakin dute hor egon daitekeela, eta horrenbeste denboran kontua isilpean izan dute, ezin kontatu, ezin esan... eta orain bat-batean kontatzerik badaukatela... Familiari itxaropena berpizten zaio, eta orduan batzutan itxaropen hori zapuztuta ikustea oso mingarria da denontzat».

Arkeologia mundua zabalda den arren, ikerketa hauek «bestelakoak» dira. «Guretzat ere oso gogorra da, gu arkeologia mundutik gatoz eta arkeologian askotan eskeleto bat ari zara arakatzeko, baina berarekiko ez daukazu inongo harremanik. Aldiz, hemen familia kideak inguruan dauzkagu, eta pertsona horren izen-abizenak dakizkigu, badakigu pertsona hori zer egoeratan hilik gertatu zen, eta askotan bere gauzeekin azaltzen da: orraza, arkatza, oinetakoak, jertsearen botoiak... Ezinbestean emozio-in-

plikazio bat gertatzen da egiten ari zaren lanarekin eta inguruan duzun jendearekiko. Bestelako indusketa arkeologikoa da.

## Nafarroako indusketak

Nafarroan hurrengo indusketa proiektua San Cristobalگو kanposantua izanen da. «Aste honetan hastekoak ginen, baina eguraldi txarrarengatik atzeratu egin dugu. Kanposantuan hasiko gara lanean, eskatera batzuk baitauzkagu».

Fustiñana egin zituzten indusketak ezagunak izan ziren, hainbat hedabidetan. «8 pertsona atera genituen, Murtxantekoak».

«Leitzan ez zuten jenderik fusilatu». Halere Leitzan ingurura hurbildu dira, Eratsunera, hain zuzen ere. «Behin deitu

gintuzten nonbait hobi bat da goela pentsatzen dutelako, baina ez dugu lanik egin bertan, indusketak egiteko baimenaz gain, lurraren jabearen baimena ezinbestekoa baita. Hor batzuk ihesi zihozela harrapatu zituzten eta gaua borda batean pasatu zuten. Han zeudela norbaitek agian abisua eman zien besteek eta hartu eta bertan fusilatu zituzten».

Milaka dira oraindik lurperatuta dauden gorpuak, anonimatoan galdurik. «Badajozko zezen plazan 1.000 pertsonatik gora daudela uste dugu. Orgiva (Granada) ere horrelako beste leku bat da...». Herrastiren ustez, «gero eta zailagoa da gauza hauek ateratzea, gertakizun horiek bizi zituztenak gehienak hil baitira. Eta hori ez bada familian gorde, betiko galdu zaigu».

## Erailtzeko arrazoiak

Urte hauetan aztertu dituzten probintziak (Leon, Burgos, Ciudad Real, Nafarroa...) Gerra Zibilean atzeguardian zudenak dira. «Ez ziren fronteko lurraldeak. Frontea ez zen sekula egon Gaztela eta Leonen, hasieratik altxamenduarien alde jarri baitzen, Nafarroa bezala. Ez gara egoera militarretaz ari, zibilen aurka egindako errepresioaz ari gara».

Probintzia hauek garaileen alde jarri ziren gerra hasi bezain laister. «Nafarroako kasuan, esaterako, Erribera lehenengo momentutik Molaren

alde jarri zen, baina mordo bat hildako daude. Zergatik? Tartean dira ideologi mendeak, inbidia, gorrotoa... eta lehenagoko istorioak. Guzti horiek hor konpondu ziren. Iraganeko istorio guztiak atera ziren. Ez zen inor epaitua izan. Guk atera ditugun hildako guztiak zibilak dira. Adibidez, Burgosko toki batean hildakoaren alabak esan zidan: *nire aita hil zuten bere ola kentzeko, bera zen ola zeukan bakarra herrian eta juxtu fusilatu zutenak gero olarekin gelditu ziren*». ◀

## hilerria ▶



### Aitor Gaztelumendi Lekuona

'Aitor Txiki'

etorri eta ekarri zenun  
bizipoza eta algarra  
irribarrea ez duzu galdurik  
hori zure zurea da  
ta gauzak nola gertatzen diren  
aizu Aitor kamarada  
eraman egin zaituzte baina  
gurekin gelditu zara

Amagioren lehengusu eta lehengusu txikiak

## hilerria ▶



### Karmele Azpeitia Odriozola

Askatasun haizeak  
lagun diezazula hegaka

Zendoia-Aranberri familia

ZARAUTZ, 2007ko ekainaren 8a



## hilerria ▶

### Karmele Azpeitia Odriozola

Karmele,  
ilargiraino eta buelta maite zaitugu

Zure ilobek: Unax, Malen eta Mikel

ZARAUTZ, 2007ko ekainaren 8a



HILBERRIAK  
URTEURRENAK  
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko  
HITZAN jarri eta Gipuzkoako  
beste 4 Hitzetan DOAN  
agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN  
120.000 IRAKURLE

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Tel.: 943 65 56 95

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko ekainaren 8a, ostirala ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez arratsaldez beroena **23** hotzera **18**

BIHARKO EGURALDIA

goizez arratsaldez

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baijarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Inura, Leaburu, Leiza, Lizartza, Orea, Tolosa, Villabona, Zuzurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA**

**902 82 02 01**

**AGENDA ▶**  
**DEIALDIAK**

**Anoeta.** Korri, Xaltoa eta Brinko pailazoan emanaldia Anoetako herriko plazan 17:30ean.  
**Leitza.** Gerra Zibilaren eta memoria historikoaren inguruko hitzaldi-mahaingurua emango du Nabaralde 20:00etan, Kultur Astearen baitan.  
**Lizartza.** Udalak Uztaileko ludoteka antolatu du, 3-12 urte bitarteko umeentzat. Izena emateko epea Ekainaren 22a Udaletxean. Begiraleak ere behar dira.  
**Tolosa.** Udaberri dantza taldearen 50. urteurreneko ekitaldian, hilaren 16an, Udaberriko belaunaldien kalejira eta bazkaria izango da. Bazkarirako sarreerak salgai daude 5 eurotan Garikano zapatadendan, Kimetzen eta Zunbeltz musika dendan.  
**Tolosa.** Hilaren 28an hasi eta lau egunetan XIX. San Juan areto futboleko txapelketa jokatu da. Izen-ematea Shanti kirolak dendan egin daiteke hilaren 23a baino lehen.  
**Tolosa.** Sanjoanetako Koadrillen Egunerako bazkarirako txartelak salgai daude Orbela tabernan. Ostiraletan eta larunbatetan salduko dituzte.  
**Villabona.** Bertso-afaria antolatu du Eragin-ek (Villabonako presoen aldeko topaguneak) Villabonako Zentroan bihar 20:30ean Amets Arzallus eta Andoni Egañarekin. Gai jartzaile: Amaia Agirre. Sarreerak salgai Erreka, Iratzar eta Xikerren.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Lekunberri.** Mendia, B. Aralar, 25. 112.  
**Tolosa.** Ollarrea, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.

**IRRATIA**

**Txolarre irrata (107.5, 101.2 FM)**  
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZAren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa...  
18:00-20:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).  
20:00-21:00. Asteko onena.  
21:00-22:00. Igo bolumena.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

# Ibaia txukuntzen

**TOLOSA ▶** Ikastetxeetako ikasleek Oria ibaia garbitzen igaro zuten goiza, Aste Berdearen baitan Udalak antolaturiko ekitaldien harira



Ikasleek atzo goizean Berazubiko zubiko erreka ingurua garbitu zuten. I. TERRADILLOS

**ERREDAKZIOA**

**T**olosako ikastetxeetako Bigarren Hezkuntzako eta Batxilerreko neska-mutilek Oria ibaiaren bazterrean garbitzen aritu ziren atzo goizean, Berazubiko zubian eta Naparzubian. Ekintzarako hez-teaz gain, jarduera honek lotura izan du Eskola Agenda 21eko ikasleek ikasturte honetan landu duten gaiarekin, hondakinak, hain zuzen ere. «Urteak daramatzagu ibaiari bizkarra emanda bizitzen eta

izugarriko erasoak jasan ditu XX. mendearen, azaldu dute arduradunek. «Dena dela, ibaiak garbitzen ari delako seinale garbiak ditu eta garaia da oraindik ere hor dirauen arazo bati aurre egiteko: izugarriko zabor mordoak pilatzen da ibai bazterrean, landarealdian eta uretan bertan». Pasa den asteartean ospatu Eguna dela eta, Tolosako Udalak «berritu egin du ingurumenarekin duen konpromisoa». Ondorioz, hainbat ekital-

di antolatu ditu aste honetan, gaur izango delarik azken eguna. Aste Berdea bezala izendatu dute, hain zuzen, aste hau. Udaletik jakinarazi dutenez, «horrelako ekintzen oinarrietako bat da herritarrak kontzientziatzea klima-aldaketaz eta Lurraren berotze globalaz». Bi gai horiek aukeratu izana ez da kasualitatea: NBE (Nazio Batuen Erakundeak) eta antzeko beste erakunde batzuk urtero gomendioa egiten dute zer gairen inguruan antolatu ingurumen eguna eta aste

berdea, eta aurrean bi gai horiek gomendatu dituzte. «Gainera, ukatzerik ez dago, larritsuaz gain, gaurkotasan izugarria dutela bi gai horiek, eta uste dugu, alarmismoan erori gabe, ekiteko garaia dela, denok baikara erantzule», azaldu dute Udaletik. Pil-pilean dagoen gaia da, bai, klima aldaketarena. Izan ere, Alemanian G8koek izaten ari diren bilerean, gai hau izan dute hizpide, besteak beste, berotegi efektua murrizteko itun bateratua hitzartu dutelarik.

**AGURRAK ▶**

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzaan Udaletxe bulegoa

**hitza**  
agurren tartea

**Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...**